



ELECTROMIOGRAMA: (EMG) (NERBIO PUDENDOEN LATENTZIA)

Hitzordua emateko, egun bat edo batzuk lehenago deituko zaizu. Hona hemen harremanetarako telefonoaren zenbakia: 945-007749 (goizez).

Zertan datza proba?

Proban, uzki-esfinterra uzkurrazten duen nerbioaren funtzionamendua aztertzen da.

Nola prestatu behar dut nire burua proba egiteko?

- Proba-egunean, goizean, garbitasun-enema bat aplikatu beharko duzu.
- Bihotzeko pauso-markagailurik edo estimulatzailerik elektrikorik baduzu, jakinarazi proba egingo dizun medikuari.

Non egingo didate proba?

- 6. B solairua, TXAGORRITXU AUO, neurofisiologiako kontsulta.
o
- Neurofisiologia Klinikoko Zerbitzuan, 3. solairuan, B-HUA Santiago pabiloian.

Lekuaren berri emango da zitazioarekin batera.

Probaren emaitza, zure historia klinikoan medikuaren eskura, egongo da.

Nola egingo didate proba?

- Ondeste-haztapen bat egingo dizute, elektrodo berezi baten bitartez. Estimulu elektriko txiki batzuk nabarituko dituzu.
- Probak 10-15 minutu inguru irauten du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ohiko bizimodua egin dezakezu eta eguneroko eginkizunetara itzuli.